

EUSKADIKO EKONOMIAKO X. OLIMPIADA

2018ko MARTXOAREN 23a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak bigarren mailako batxilergoko "Ekonomia eta Enpresen Antolaketa"ri dagozkion bost galdera ditu. Hala ere, ikasleak gehienez hauetako bi galdera ordezkatzeko aukera izango du batxilergoko lehen mailako "Ekonomia" irakasgaiko 2 galderagatik
- Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.
- Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.

EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

1.GALDERA

Enpresa batek bi aukera ditu bere negozio arloa handitzeko:

- 1) Negozioa 400.000 euroan handitzea 160.000€/urte lortzeko datozen hiru urteetan.
- 2) Negozio berri bat erostea lehiakide bati 500.000 eurogatik. Lehenengo urtean ez da emaitzarik espero, baina bigarren urtean eta hirugarrenean 300.000€ irabaztea –urte bakoitzean– espero da.

Gainera, pentsatzen ari da ere negozio berean ez inbertitzea, horrek duen arriskuagatik, eta alternatiba izan daiteke lursail bat erostea 600.000 eurogatik eta hiru urteren buruan saltzea 1.000.000 eurogatik.

Jakinik eguneratze tasa konstantea % 5koa dela:

- 1- Kalkulatu inbertsio hauen Balio Eguneratu Garbia.
- 2- Adierazi zer ordenatan aukeratuko zenukeen inbertsio bakoitza.

2.GALDERA

KATU enpresak piano elektrikoak saltzen ditu. Biltegiko operazioen urtarrileko erregistroak mugimendu hauek jaso ditu:

- Urtarrilaren 1ean, 100 piano daude biltegian; erosketa prezioa: 600 euro/unitate.
- Urtarrilaren 4an, 25 piano saldu dira; 1.300 euroan piano bakoitza.
- Urtarrilaren 9an, 15 piano erosi dira: 750 euro/unitate.
- Urtarrilaren 10ean, istripu bat izan da biltegian eta 4 piano hondatu dira.
- Urtarrilaren 17an, 20 piano erosi dira: 700 euro/unitate.
- Urtarrilaren 20an, 86 piano saldu dira; 1.150 euroan piano bakoitza.
- Urtarrilaren 27an, urtarrilaren 21 saldutako 3 piano itzuli dituzte.

Kalkulatu KATU enpresaren izakinen balioa FIFO balorazio irizpidearen arabera.

3. GALDERA

Andonik, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua ikasi ondoren, abian jarri nahi du enpresa jarduera bat, kirol jertseak fabrikatu eta saltzeko. Kirol jertse bakoitzaren salmenta prezioa 20€ da. Kirol jertseak fabrikatzeko, hiru produkzio ekiporen artean aukeratu behar du. Kostu hauek dituzte:

Ekipoa	Urteko kostu finkoak	Unitateko kostu aldakorrak
ONA	50.000€	10 €
DANOK	77.000€	6€
BAT	90.000€	5€

- a) Kalkulatu produkzio ekipo bakoitzaren errentagarritasun atalasea edo oreka puntua.
- b) Azal ezazu errentagarritasun atalase edo oreka puntu kontzeptuaren esanahia eta erabili horretarako ONA kostuen egituraren lortutako datua.
- c) Urtean 9.000 kirol jertse salduko dira. Andonik ONA produkzio ekipoa aukeratu du, errentagarritasun atalase txikiena duelako. Zure ustez, produkzio ekipo egokia aukeratu du? Zein da ekipo bakoitzaz lortutako emaitza?



4. GALDERA

Laukian bildutako zerga oinarriak Bilbo Loreak SA enpresak 2017ko azken hiruhilekoan egin eta jaso dituen fakturei dagozkie (eurotan):

Zerga oinarriak	F1	F2	F3	F4	F5	F6
Jasotako fakturak	30	450	55			
Eginiko fakturak				350	100	100

Faktura guztietan, zerga tasa orokorra erabili da, 3. fakturan (F3) izan ezik (tasa murriztua aplikatu da, erakusketa bat delako).

- 1.- Zer da ekoiztako ondasun baten balio erantsia?
- 2.- Zer da BEZa?
- 3.- Zer eremutan (lurraldea) aplikatzen da?
- 4.- Egin enpresaren hiru hileroko BEZaren likidazioa.

5. GALDERA

Oinetakoak egiten dituen enpresa batek irabazi handienak emango dizkion produkzio estrategia aukeratu behar du. Produktu posibleak dira: larruzko botak, oinetakoak eta uretako botak.

Erabakia hartzeko, aintzat hartu behar du datorren neguan egingo duen eguraldia, horren mende egongo baita produktu bat gehiago edo gutxiago saltzea. Hiru dira aurreikuspenak eguraldiari dagokionez: negu hotza, normala eta euritsua.

Azken neguetako eguraldia aztertu ondoren, probabilitate hauek ezarri ditu:

% 20 negu hotza

% 35 negu normala

% 45 negu euritsua

Bestetik, bere esperientzian oinarrituta, irabazi hauek aurreikusi ditu (eurotan):

Larruzko botak: 60.000, 15.000 eta 2.500

Oinetakoak: 5.000, 30.000 eta 10.000

Uretako botak: 5.000, 7.500 eta 50.000

Hurrenez hurren, negua hotza, normala edo euritsua baldin bada.

Kontuan izanik datu horiek guztiak:

- a) Egin erabaki matrizea. Kalkulatu estrategia bakoitzean espero daitezkeen balioak.
 - b) Demagun enpresak ez dakiela zer probabilitate dagoen negua hotza, normala edo euritsua izateko. Zer aukera hautatuko luke irizpide pesimista edo Wald irizpidea erabiliko balu? Eta irizpide optimista erabiliz gero?
- a. Esan zer aukera hautatuko lukeen enpresak erabakia hartzeko Hurwicz irizpidea erabiliz gero, jakinik optimismo koefizientea 0,6 dela

EKONOMIA

1. GALDERA

Demagun herrialde batek makro magnitude hauek dituela 2016. eta 2017. urteetan (milioi eurotan):

	2016	2017
Gastu publikoa	10.000	11.500
Kontsumoa	50.000	47.500
Inbertsio pribatua	7.000	8.000
Esportazioak	700	1.100
Inportazioak	1.200	1.300
Zeharkako zergak	1.500	1.600
Diru laguntzak	1.200	1.500
Interesak	1.800	2.000
Alokairuak	1.600	1.500

Inflazioa % 5koa izan da. Kalkulatu:

- a) 2016 eta 2017ko merkatu prezioetako BPGd. Azaldu ekonomia hazi den ala ez.
- b) 2017ko faktore kostuetako BPGd. Esan zer harreman dagoen merkatu prezioetako BPGd eta faktore kostuetako BPGd artean.

2. GALDERA

Europako burtsek behera egin dute berriro Wall Streeten hondamendiaren ondoren. Ibex indizeak % 1etik gora galdu du eta bankuak izan dira enpresa zigortuenak (El País, 2018/02/09)

Hegazkortasuna izanik merkatuetan nagusi, Europako burtsek behera egin dute, modu arinean bada ere, Wall Streetek eta Asiako burtsek izandako galeren ondorioz. Espainiako erreferentzia indizea den Ibex 35ek, zalantza batzuen ondoren –errebotoerako zantzuak erakutsita ere–, behera egin du azkenean, eta eguerdirako % 1etik gorako galera izan du, Europako gainerako burtsetan gertatukoaren antzera.

Wall Streeten nagusi izan den tentsioa –puntutan bere historiako bi galera handienak izan ditu aste honetan eta % 10etik gorako galera metatu du urtarrilaren amaierako maximoez geroztik–, Asiako burtsei indarrez kutsatu zaiena, modu leunagoan iritsi da Europara.

Horrela, galera txikiak izan dituen irekitze baten ondotik –zenbait unetan berderanzko bidea hartuko zela zirudien arren–, azkenean galera berriekin itxi dute astea Europako burtsek. [...]

Inbertsiogileek bonuen merkatuan jarri dute arreta, eta horrek izugarri handitu du hegazkortasuna aste honetan. Zor subiranoaren errentagarritasuna handitzean, eta dirua garestitu eta, hortaz, enpresen irabaziak murriztuko dituen tasen igoera baten aurrean, inbertsiogile askok bonuetan jarri dute arreta eta urrundu egin dira errenta aldakorretik. Beste azalpen posible bat izan daiteke besterik gabe zuzenketa bat gertatu izana Wall Streeten, urtebetetik gora maximoak bata bestearen atzetik gaudituz galera handirik gabe ibili ondoren. Argi dagoena da hegazkortasuna muturrekoa dela, eta horren adibide da Chicagoko burtsaren VIX indizea –alderantziz lotua Wall Streeten S&P 500 indizeari– Brexitaz geroztik ezezagunak ziren maximoetara iritsi dela.

Edonola ere, analistek behin eta berriro nabarmentzen dute ekonomia martxa onean doala eta, paradoxikoki, galerek hori adierazi baino ez dutela egiten. Martxa on horregatik egiten dute gora tasek, eta krisi urteetan ekonomiari erantsi zaizkion estimuluak kentzea adierazten du horrek.

Irakurri albistea eta erantzun galdera hauei:

1. Zer da burtsa? Azaldu gaingiroki haren funtzionamendua.
2. Zer da IBEXa? Zer esan nahi du IBEXak galtzeak?
3. Zer dira errenta finkoko eta errenta aldakorreko tituluak? Zertan dira desberdin?
4. Azaldu zer esan nahi duen azpimarratutako testuak albistearen testuinguruan.